

Kontrol mozioa

Blas de Otero plazako kirol kantxa kendu izanari buruz

EH Bildu udal taldeko zinegotzi Reyes Carrere Zabalak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Blas de Otero plazako kirol kantxa kendu izanari buruz, osoko bilkuran azter dadin. Mozioa abenduaren 9ko Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako Udalak kirol kantxa bat jarri zuen Egia auzoko Blas de Otero plazan 2016an. Kirol kantxa hura plaza osoa berritzeko asmoz auzotarrekin 2014an egindako prozesu parte-hartzailean jasotako azpiegituretako bat zen, eta geroztik, Egia inguruko haur eta gaztetxoek erabili dute jolasteko eta elkarren arteko harremanak lantzeko.

Ustekabean, ordea, 2018ko maiatzean Eneko Goiaren Udal Gobernuak iragarri zuen kantxa handik kendu eta Uliara eramango zuela: erabaki hura hartzeko, plazako zenbait lagun, zaratengatik, kexu zirela argudiatu zuen Udal Gobernuak. Prozesu parte-hartzaile batetik eratorritako azpiegitura izanagatik ere, erabakia hartu aurretik Eneko Goiak ez zuen egitarren iritzia bildu eta Egiako auzo elkarte Egia Bizirik-ekin ere ez zuen hitz egin; beraz, praktikan, auzotarrekin batera hasieran hartutako erabakiaren gainetik salto egiteaz gain, zilegitasun osoa kendu zion lau urte lehenago egindako prozesuari. Kirol kantxa Uliako magalera eramateko ustezko arrazoen berri ere ez zuen eman Udal Gobernuak.

Erabaki hark hautsak harrotu zituen, eta ondorengo asteetan kirol kantxa Blas de Otero plazan uztearen aldeko mila sinadura baino gehiago bildu ziren Egian. PNV-PSOeren Gobernuak, azkenik, atzera egin behar izan zuen, eta irtenbide moduan, kantxa plazan bertan mantentzea baina lekuz

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

mugitu eta etxeetatik zertxobait urruntzea eta hesiak jartzea erabaki zuen 2018ko abuztuan.

Kirol kantxak plazako kokapen berrian jarraitu du, beraz, urtebete luze honetan, harik eta azaroaren 13an, isilpean eta alde zurretik ezer ere iragarri gabe, udal langileak azpiegitura kentzen hasi ziren arte. Ondoren irakurri genuen komunikabideetan Errotetara eraman nahi zuela Udal Gobernuak eta arrazoia zela udal artxiboa kokatzeko lanak egin behar zituztela Blas de Otero plaza azpian. Behin lan horiek bukatuta, kantxa Blas de Otero plazara itzuliko zen ala ez ez zekiela esan du Eneko Goiaren Udal Gobernuak. Gaur egun, kantxa Errotetan dago, eta berriro ere inork ez daki zeintzuk diren hara eramatea erabaki izanaren irizpideak.

Larria iruditzen zaigu mota honetako erabakiak ezkutuan eta auzotarrei ezer esan gabe hartzea eta gauzatzea (udal taldeekin ere ez da inongo komunikaziorik egon honetaz). Are larriagoa, Blas de Otero plazatik kendutako azpiegitura prozesu parte-hartzaile batean auzotarrekin batera hartutako erabakia zelako, eta hala ere, auzotarrekin hitzik ere egin gabe (Egia Bizirik elkarteak publikoki salaketa egin du) atzera bota delako orain. Larria da, baita ere, Udal Gobernuak adieraztea ez dakiela gero kantxa plazara itzuliko den ala ez: ez al daki plaza hori nola geratuko den obra egin ondoren? Sinestezina. Eta larria da, era berean, Errotetara eraman izanaren arrazoiak ez ezagutzea (iaz Uliara eramatea erabaki izanaren arrazoiak ezagutu ez genituen bezala).

Abenduko batzordean gobernuak interpelatu genuenean, Martin Ibabe Kiroletako zinegotziak azkar egindako erabakia izan zela erantzun zuen: artxiboaren obrak hastear zirela eta ez zegoela beste aukerarik. Tamalez, Ibabek ez zuen argitu zergatik Udal Gobernuak ez zen elkartu bizilagunekin instalazioa kendu aurretik; ez zuen inongo kezkarik agertu partaidetzaren ikuspegitik oso praktika txarra den erabaki honengatik eta ez zuen halakorik ez errepikatzeko asmorik erakutsi; ez zuen argitu kirol azpiegitura Egia itzuli behar duten ala ez, edo beste alternatibarik aztertuko ote duten...

Honenbestez, gaur egungo errealitatea hau da: Egia auzoko gazteek eta nerabeek sozializazio eta kirol-gune hau galdu dutela eta Udal Gobernuak ez diela momentuz beste aukerarik ematen. Eta herritarren partaidetzarekiko Udalaren sinesgarritasuna, zeharo kolokan.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

- 1-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari errespetatu ditzala herritarrekin batera prozesu parte-hartzaileetan hartutako erabakiak eta ez ditzala haiek alde bakartasunez aldatu
- 2-Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari azter ditzala kirol kantxa udal biltegiaren proiektuarekin uztartzeko eta kirol azpiegitura hau Blas de Otero plazara

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

itzultzeko aukerak zein, haren ordezt, Egiako haur eta gaztetxoek espazio publikoan kirola egitea eta aisialdiaz gozatzea berma lezaketen alternatibak.

Donostian, 2019ko abenduaren 12an

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldeko zinegotzia